

...eta

# Kitto!

919 zkia.  
2015-11-13



## ARATOSTEEKIN maiteminduta

R.P.S. Nº 49/10 LLG.

2. betau-  
rrekoak  
**DOAN**

zure mó betaurreko  
graduatuak  
erostean

**67€**

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste osaketa batzuetan erabili.




Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan





# ARATOSTIETAKO...



## ARATOSTEETAKO LEHIAKETA

Aratosteetan giro edo dekorazio onena duen **TABERNA**

Astekari honetan publizitatea jarri dutenen artean, aukeratu zuri gehien gustatu zaizuna:

- |          |             |           |
|----------|-------------|-----------|
| ✓ Akara  | ✓ Ez Dok    | ✓ Txoko   |
| ✓ Ametsa | ✓ Guridi    | ✓ Txurрут |
| ✓ Arkupe | ✓ Hirurok   | ✓ Vivaldi |
| ✓ Beleko | ✓ Katu Kale | ✓ Xok     |
| ✓ Bossa  | ✓ Kultu     |           |

parte hartzeko...

Giro edo dekorazio onena izan duen tabernaren aukeraketan laguntzeagatik ...etakitto!ko **kamiseta** eta **sudaderaren** zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Parte hartzeko moduak:

- beheko papera bete eta ...eta kitto-ko buzoian laga (Uzkizu II, solairuartea)
- twitter: jarri gustoko duzun tabernaren izena **@etakitto**-n

Azkenengo eguna: **asteazkena 18**

Aukeratutako Taberna .....

Partehartzailearen izen abizenak.....Telefonoa .....

## ASTEAN ESANAK

"Islamiarrek AEBetan egindako hainbat atentatu FBIk ordaindu eta bulizatu zituela argitu du Human Rights Watch erakundearen txosten batek. Datu kezagarri bat: Charlie Hebdoren aurkako atentatuaren osteko astebetean, musulmanen aurka gutxienez 54 ekintza (21 eraso eta 33 mehatxu) salatu zituen Frantziako Estatuko Musulmanen Kontseiluak"

(MIKEL GARCIA IDIAKEZ,  
KAZETARIA)

"Hiru urtean dozena bat orgiatan hartu nuen parte, baina ez nekien gonbidatutako emakumeak prostitutat zirenik. Ni gonbidatu bat nintzen"

(DOMINIQUE STRAUSS-KHAN,  
NAZIOARTEKO DIRU FUNTSEKO ZUZENDARI-OHIA)

"Ekotalibanak demagogia merkea besterik ez dakite egiten. Pinu insignis-a espezie exotikoa dela esaten dute; bai, Tolosako babarruna bezain exotikoa! CAF-eko behargin bat mendira badoa, seguru pistak zabaltzearen edo zuhaitzak botatzearen aurka dagoela. Badaki bere enpresaren produkzioa hemen moztutako egurrarekin enbalatuta saltzen dutela?"

(JON ARRUTI,  
ENBA-KO BASO-SEKTOREA)

"Aspe sortu zenean, Titinek hitza emana zien hurrengo urteetan lankide izango zituen haiei, eta hitza bete egin zuen enpresa berria sortuz eta bide batez kristoren 'pelotazoa' jotzeko aukera bertan behera utziz. Aholkulariari kasurik egin gabe, bere jatoriasuna erakutsi zuen"

(KOLDO ALDALUR,  
KAZETARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KIRRI-KARRA.-** Zeozer gogorra jatean haginek egiten daben hotsa. "Kirri-karra ez dira jan bihar karameluak, hagiñak hausten dira bestela".

**KIRRI-KARRA JAN.-** Haginekin txikituz jan. "Ni ikusitta nago mutil kerten bat bonbillia kirri-karra jaten".

**KIRRI-KORRO.-** Katarruak bular barruan sortzen daben hotsa. "Zure kirri-korrua be ez da ba errez juaten; hartuizu esne berua eztixakiñ".

Gosiak tripetan sortzen daben zaratia. Tripa-zorrixak. "Hau gosia! Tripak kirri-korro dakadaz".

## eskutitzak

### - OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berri, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

**ERREDAKZIOA**



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /  
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.  
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** A.T.X.  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679  
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



## Ipurua Taillarra aurkeztu dabe

Eibar Kirol Elkarteak kiroletik haratago doian proiektua lantzen diharduala emon eban aditzera martitzen goizian eskindutako prentsaurrekuan. Ipurua Kirol Fundaziñuak Armerixa Eskolia aukeratu eban "Ipurua Taillarra" izeneko proiektuaren barri emoteko. Alex Aranzabal foball taldeko presidentiak presentaziñuan esandakua arabera, "ilusioz betetako proiektuaren gaillurra dan Ipurua Taillarra, Kirol Profesionaleko eta errendimendu altuko Teknikaziño Zentrua hartuko leukez, kirol-federaziño guztien presentakuntza eta hobekuntzarako. Proiektuak gure unibersidadia, FLP eta hainbat kirol eta gizarte erakunderen parte-hartzia izango leuke eta ekonomixa eta finantzakudeketiaren eredu eraginkorraren adibide garbixa izango litzake, beti be gure kirolarixen onuran pentsauta".

Bost epetan egitteko diseñau daben planari jarraituta, klubak hōnetxek aurreikusten dittu bestiak beste: 2.845 metro karratuko azaleria hainbat jarduerarendako (Heziketa eta Barrikuntza Zentrua, erabillera anitzeko lokalak, bestelako zerbitzuak...); Ipar, Ekialde eta Mendebaldeko tribunak haunditza, 3.619 jarleku gehixago lortzeko; 9.332 metro karratuko azaleria lurrazpiko bi solairutan egokitzia, aparkatzeko 280 leku egokittuta; kirol-instalaziñuak 6.620 metro karratutan haunditza, bestiak beste entrenamenduetarako bedar naturaleko zelaixa egitteko; eta zelaiaren inguruak urbanizatza.

Ipurua Tallarra "euska kirola dinamizatze eta Eibarren garapen ekonomixa eta lanpostuak sortzeko proiektu gisa" aurkeztu eben eta lehen fasiari Iparraldeko tribuna haunditzeko biharrekin ekin ja-



Jon Arregi, Mikel Larrañaga eta Alex Aranzabal aurkezpenean SILBIA HERNANDEZ

kola azaldu eben eta horretan 2'2 millioi euro gastatza dago aurreikusitta. Proiektuak osotasunian 21 millioi euroko aurrekontua daka eta asmua bere kabuz finantzatzeko modua izatia litzake.

## Gaikako zabor bilketiak gora

Debabarrenako Mankomunidiak aurreko astian aurkeztu zittuan datuen arabera, 2014an gaikako bilketiak %35'7-xa gairiditu eban, "bestiak beste organikuak batzeko bosgarren edukiontzixari esker". Arcadio Benitezek azaldu ebanari jarraituta, "Mankomunidiak nabarmen hobetu dittu gaikako bilketari lotutako emaitzak, 2013ko %26'62tik iazko %35'77ra ailllegatzia lortu dogu eta. Ehunekuetan emon dan sei puntuko igoera horren gako bosgarren kontenedoriari zor jako. Organikuaren bilketia ixa bikoiztu da eta urtebeteko tartian 1.513 tona jasotzetik 2.948 tona batzera pasau gara". Bestela, beste hondakiñen bilketiaren inguruko datuak be hobera egin dabe: bildutako papel kopuruak 2.268 tonatik 2.367 tonara egin dau

gora, ontzi-bilketiak %10eko hazkundia euki dau (862 tonatik 948 tonara) eta kristalak be azken urtiotako kopuruari eusten detsa (1.963 tonatik 2.068 tonara igota). Edozelan be, erantzunkizuna herritar bakotxarena dala gogoratu eben, "guk bittartekuak ipiñitta be, horrek erabilli ala ez jendiaren esku dagualako".



## Enpresak 3D inpresian trebatzen

Armerixa Eskoliak, Debegesarekin alkarlanian eta "Debabarena i3D Ekosistema" goiburuari jarraituta eskualdeko 15 enpresa aukeratuko dittue, bertako bihargiñak musutruk 3D inpresian trebatzeko aukeria euki deixen. Proiektuak Angel Arbonies & Asociados eta Tumaker enpresen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasuna dauka eta horrelakuekin Armerixan dagan Ikaslab 3D inpresiorako laborategixari etekiña etara nahi detsela diñue.



ARRATE KULTUR ELKARTEA  
"TOPALEKU"

## Kulturako logotipuak ikusgai

Arrate Kultur Elkarterako logotipo lehiaketara aurkeztu dittuen lan guztiakin erakusketia dago zabalik Topalekuan, nahi dabenak ikusteko moduan. Domekara arte ikusgai egongo dira logotipuak, 19.00etatik 21.00etara eta bertan daguazenen artian bat aukeratuko dabe Arrate Kultur Elkarte logotipo baxia izateko. Horretarako, Kulturaleko bazkidieri erakusketara juan eta gehixen gustatzen jakuenaren aldeko botua emoteko dei egin nahi detse, boto gehixen jasotzen daben proposamena hillaren amaieran egingo daben urteko batzarrian berretsiko dabelako.

## Jende mordua Estetika Azokan


Aurreko asteburuan Untzagako karpapara gerturatu ziranak gure herrixan estetika arloan daguan eskintzaren barri jaso eben, zapatuan eta domekan martxan egon zan Estetika Azokari esker. Bestiak beste, belarrendak, ile-apaindegixak, estetika-ko produktuak saltzen dituden dendak, lurrindegixak, drogerixak, botikak eta parafarmaziak hartu eben parte eta azokako postuetan bako-txaren eskintza bertatik bertara ikusi ez eze, probatzeko aukeria be euki eban jendiak.



Azokara juan zan jendiak aukeria izan eban estetika lanak dastatzeko. LEIRE ITURBE

## Garraiorako dispositibo adimentsuak

Interneten aditua den CodeSyntax enpresakua garraibidietarako dispositibo adimentsuen etorkizuna aztertzen daben "Guide2wear" Europako proiektuan parte hartzen dihardue.



Alemaniko Fraunhofer e InnoZ; Austriako Factum y BOKU, Suediako VTI eta Belgikako TML bazkide dituduan proiektuak 1'4 millioi euroko aurrekontua dauka eta eibarrak dispositibuak euki leikien potentziala neurtzen dabiz. Horrekin batera, gaur egungo gaillu eramangarriak erabilitta garraibide publikuak eskintzen dituden nabegaziño zerbitzuetarako prototipua sortzeko biharrian dihardue.

## autuan

### MATXARIATUZ TAILLARRA

Matxariatuz herritarren parte-hartzerako prozesua azken txanpan sartu da eta bosgarren eta azken tailarra hillaren 18xan egingo dabe, 18.30xetan Armagintzaren museuan (Portaleko 5. pisuan). Oñi arte egindakuaren barri euki nahi dabenak udalaren webgunian (eibar.eus) edo www.rb3innovacion.com helbidian topauko dau informaziñua.



### EIBARKO EUSKERIA FACEBOOK-EN

Facebook-en perfil barrixa dauka Eibarko Euskeriak, orrialdieri eskindutako atalaren barruan. Orrialdia zabaldu eta "Atsegin dut" sakatuta, hor sartzen ditudenen barri jaso leike.



Funeraria-Ehorztetxe  
**Mugica**

**EIBAR**



**Beilatokia**  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**



**Beilatokia:**  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)



**Bulegoa Eibarko erdialdean**  
Bulegoa Bidebarrieta, 20

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
☎ **943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea





## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreak / 1. solairua  
☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

- 1) Kardiologia; 2) Zirurgia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Anlisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (**BERRIA**)



asteko

84

datua

ohe izango dindu Torrekuan  
egingo dan ospitalak,  
ospitalizazio hiru  
unidadetan banatutakua.  
Gaixonduan duguaz  
paziente kronikua  
artatuko dira bertan,  
errehabilitazio intentsibua  
bihar dabenekin batera.



## Gatzizenen proposamenak domekara arte

Otsailaren 15era arte onartuko ditudue Eibarko gatzizenen lehiaketarako proposamenak. Lehiaketa Udal Euskaltegia eta AEK-k antolatu dabe, udalarekin lankidetzan, eta parte hartu nahi dabeneri Antxon Narbaizaren "Eibarko gatzizenak" liburua erabiltzia gomendatzen detse, lan horretan gatzizen zerrenda luzia dagualako. Proposamenak zuzenian euskaltegixetara edo Juan San Martin liburutegira eruan leikez edo, bestela, euskaltegia@eibar.net edota eibar@eak.org helbidietara bialdu

## Sukaldaritza tailarra Defibelen eskutik

Defibel Debabarreneko fibromialgia eta astenia kronikua alkartekua "Osasunaren eta sukaldaritza biziberritzailearen inguruko tailerra" izenburukua antolatu dabe. Lau saioko tailarra izango da: martxuaren 28xan "Jate emozionala: janaria janari baino gehiago denean" izenburukua emongo dabe; apirilaren 25ian "Apetak gure aliatuak eta elikagaiekiko eta gogo-aldartearekiko lotura" izenburukua; maiatzaren 23an "Irabiatu Berdeak: osasun-edabe atsegingarriak"; eta azken saia, "Nire gako guztiak pisua sufritu gabe galtzeko eta berriz ez berreskuratzeko" ekaiñaren

27xan izango da. Tailar guztiak Portaleko sukaldian izango dira, 10.00etatik 13.00era eta dinamika hõneri jarraituta emongo ditudue: ordubete hitzaldi teorikua eta partaidien arteko esperientziak trukatzia, 15 miñutuko atsedenaldia belar-teak hartzeko eta ordu eta erdiko sukaldaritza ikastarua, plater osasungarriak preparatu eta dastatzeko. Irakaslia Aliza Otxandia-



no (EHU-ko Biologia Zientzietan lizentziatua) izango da. Saio baterako prezia 32 eurokoa da eta danetarako prezia, barriz, 107 eurokoa (martxuaren 10erako izena emoten dabenedako 30 euro / 97 euro). Izena emoteko edo informazio gehixagorako 678068959 telefonora deittu edo defibel@gmail.com helbidera idatzi leike.



## 28 taberna gilda lehiaketan

Ostalariak Berbetan programaren barruan, Euskeraz Primeran! goiburuari jarraituta ...eta kitto! Euskara Elkartek eta udalak antolatu daben I. Gilda Lehiaketan 28 tabernak emon dabe izena:

Kultu, Koskor, Guridi, Boulevard, Txoko, Amesti, Birjiñape, York, Alberto, Cepa, Foxter, Paulaner, Agiñaspi, Ongi-Etorri, Astelena, Beleko, Bossa, Arkupe, Nuevo, Terraza de Rober, Gurbil, Janetaedan, O'Hara, Caserio, Depor, Akara, Bar Paloma eta Txurru lehiatuko dira. Lehiaketa martxuaren 5ian eta 6xan egingo da eta, epaimahaixak emongo daben sariaz gain, herritarrak be eukiko dabe gehixen gustau jakuen gilda zein izan dan esateko aukeria. Tabernetan gilden katalogua egongo da, taberna bakotxak aurkezten dabeneren argazkixarekin, holan jendiak horrenbeste taberna artian nora jua aukeratzeko. Kataloguarekin batera, tabernetan kutxatxo bat ipiñiko dabe, euro baten truke jandako gilda baloratu eta bakotxak bere bozka bertan sartzeko.

## VICTOR BERASUETA IRAOLAGOITIA (2015-II-8)

*"Bizitza urteekin betetzea ez da kontua,  
urte horiek bizitzaz betetzea baizik"*

ETXEKOEK



Orain dela bost urte iruten hasi zenetik, Miren Torrealdy-k hamaika aldiz entzun du umetan ikasi genuen Loti Ederraren ipuinaren inguruko erreferentziaren bat. Ulertzekoa ere bada, gutariko gehienok argazki artxibategietatik kanpora desagertuztat ematen genuen irudia nekez errepikatuko baita orain dela urtebete inguru zabaldu zuen Ardilanak-etik kanpora. Gaur egun neska gazte bat goruan iruten ikustea bitxia bada, horretan hasteko bideari interneten ekin ziola entzutea oraindik bitxiagoa egingo zaio askori. Edozelan ere, irule eibartarrak naturaltasun osoz, primeran uztartu ditu antzinako lanbidea eta teknologia berriak.



Untzagako dorrean zabaldu zuen "Ardilanak" Miren Torrealdyk.

**MIREN TORREALDAY, irulea:**

## "Gure baserrietan irutea beste etxeko lan bat baino ez zen"

### - Nolatan hasi zinen goruan iruten?

Umetan amamarekin puntu tontoa egiten ikasi nuen eta, luzaroen lagata izan eta gero, handik urte batzuetara, 18 bat urte nituela berriz hasi nintzen horretan, lasaitzeko terapia moduan. Hamaika alditan bufanda berbera egin eta desegin nuen eta, lagun batekin batera, gaiarekin interesatzen joan nintzen eta puntuaren inguruan benetan mundu zabala zegoela ikusi genuen. Nik egin nahi nituen enkajeak egiteko oso artile espezifikoak behar nuen, interneten horren bila hasi eta horrela jakin nuen oraindik iruten duen jendea egon badagoela. Horren inguruko jakinmina piztu zitzaidan eta, Bartzelonan nik behar nuen fibra aurkitzean, lehen ardatza muntatu eta iruten hasi nintzen. Gustatzen zitzaidala ikustean, handik astebetara Zeelanda Berrian egingadako gorua erosi nuen. Ohiturak dio goruari izena ipini behar zaiola eta nik Ikea ipini nion, gorua nik neuk muntatu nuelako.

- **Gorua Zeelanda Berrietik ekartzeko, ez da erreza izango horrelakorik hemen inguruan aurkitzea...**

Harrezkero bost urte igaro dira eta, egia esateko, orduan orain baino zailagoa zen. Baina gero eta goru gehiago ikusten hasi dira. Etxean goru tolesgarria daukat eta hori Errioxan, antikuari batean erositakoa da. Sarritan horrelako dendetan saltzen dituz-

tenak erabilezin bihurtutakoak izaten dira, baina hau osorik eta erabiltzeko moduan zegoela ikusi nuenean, birritan pentsatu barik erostea erabaki nuen.

- **Irulearena ia galdutako lanbidea izanik, nola ikasi duzu?**

Zeharo autodidakta naiz, Youtuben dau den bideoak ikusita ikasi nuen. Eta behin hasita, horrelako lanetarako eskua dudala konturatu naiz. Bestela, berez lan erreza da, orain ez horrenbeste urte baserrietan iruten zen, egin beharreko beste etxeko lan bat gehiago zen. Ez du aparteko trebetasunik eskatzen. Azken batean, mugimenduak mekanikoak dira eta badirudi hor nonbait oroimen muskularrean zerbaitek irauten duela. Egia da ia galdutako lanbidea dela, baina oraindik geratzen dira irule batzuk. Iruten hasi eta denbora batera horietako bat ezagutu nuen Lasturren.

- **Zaletasun edo denborapasa modura hasitakoa ogibide bihurtu duzu...**

Antropologia ikasi nuen eta ogibidez liburuzaina nintzen. Beharra albo batera lagatzea eta honetan hasteko erabakia hartzea ez zen erreza izan, baina etxekoe eta lagunek asko animatu ninduten eta, horrela, pausoa eman eta Ardilanak zabaldu nuen.

- **Zertarako erabiltzen dira zuk iruten dituzun moduko hariak?**

Berez edozer egiteko balio dute. Nere espezialitatea enkajezko tokillak dira eta horrelakoak egiteko oso hari finak, gramo gutxitan metro asko betetzen dituztenak behar izaten ditut.

- **Eta merkatuan dagoen eskaintza zabala-rekin, horren zaila egiten zaizu zuk behar duzuna aurkitzea? Zertan ezberdintzen dira zuk iruten dituzun hariak eta artilea?**

Norberak irutean lortzen duen artileak zerikusi gutxi dauka artile komertzialarekin, norberak irutean bestela nekez aurki daitezkeen ezaugarriak dauzkan artilea lortzen da. Bestalde, artilea bera sortzeko prozesua ezagutzean materiala bera hobeto lantzen da. Zehazki nahi duzun kolorea lortzeko ere gauza bera geratzen da, nik Lasturren bizi den irule horrekin ikasi nuen tintatzen, tinte naturalak erabilia nahi ditudan koloreak lortzen ikasi dut: intxaurren kanpoko oskolak berdea ematen du, kipularen azal-lak horia...

- **Klaseak ere ematen dituzu, ezta?**

Bai, ikasi nahi dutenentzat klaseak ematen ditut eta badauzkat ni baino gazteagoak diren ikasleak, baita nagusiagoak ere. Nik pauta batzuk ematen dizkiet, martxan hasteko pausoa azaltzen dizkiet, baina gehienbat independente izaten erakusten ahalegintzen naiz.



# KOKO-JANZTEKO ORDUA AILLEGAU JAKU



Badira egun batzuk Aratostiak ate joka dittugula. Zubietako eta Iturengo joalduek edo zanpantzarrak urtarrileko azken astian egin zittuen euren kalejirak eta geurian be aurreko asteburuan urten eben koko-dantzari eta koko-marruak. Atzo, barriz, batez be umiak animau ziran koko-janzten. Eta gaurtik hasitta, Aratostiak beteko dabe asteburua. Urte guztian bakotxak derrigor eruatzen dogun "maskaria" etxian laga eta gehixen gustatzen jakun moduan koko-janzteko ordua aillegau jaku, oin norberak ikusi biharko dau aukeria aprobetxau ala ez...

**G**oizian goiz ekin zetsen egunari Kezka dantza taldiaren ekimenez zortzigarenez urten eben **koko-dantzari eta koko-marruak**: urtero lez, beste iñora juan aurretik Merkatu Plazan dantza saiua eskindu eben eta, hanguak amaittuta, baserrietako koko-eskiarekin segidu eben. Aurten Otaola-Kiñarra aldeko basarrietan ibilli dira kalejiran, hasieran koko-konpartsia talde bittan banatu eta bakotxa bere aldetik eta, behin Altamira-erdikoa basarrian talde bixak bat egittian, hortik aurrerako ibilbidia danak alkarrekin oiñez segidu eben. Egun batzuk lehenago bota eban elurrak ez zittuan kokodantzariak kikildu. Are gehixago, oindiok animo haundixagarekin ekin zetsen koko-eskiari, "basari inguruetako mendixak sekula baiño polittaguak eguazelako". Eta egunaren zatirik haundixena baserri batetik bestera ixa geratu barik ibilli baziran be, koko-konpartsako kidiak sasoi betian daguzela edarto



Gaur illuntzeko 20.00etan Urkizun alkartu eta Untzagariño kalejiran juango dira kaldereruak. LEIRE ITURBE



erakutsi eben illuntzian herrian, erdialdeko kalietan Mautitza txarangakuak lagunduta egin eben kalejiran eta koko-dantzen erakustaldixan. Urtiekien jendiari gero eta ezagunak egitten jakoz kalejiran ibiltzen diran koko-marruak: Masustak, Burburi-xuak, Martin Perratzaillia, Sasi-kartia, Aixerixak, Petra eta Maria, Don Eusebio, Kattalin eta Manuela Paguanekuak, Arragueta-ko Ama Birjiña eta Batista Kojua... antxiñako Aratostietako girua bizitzeko aukeria eskindu zeskuen atzera be.

Bestelako girua ekarri zeskun **atzo Eguen Zurixak**. Eskoletako kalejirak eta umiak gure kaliak kolore biziz bete eta gero, gaur nagusixak errelebua hartzeko eguna izango da. Urtero lez, Aratoste **Barixakuan Hungariako kaldereruak aillegauko jakuz**. Illuntzeko 20.00etan Urkizun alkartu eta gero, Untzagariño kalejiran igoko dira motxailen azalian sartu ohi diran taldietako ordekarixak: Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto! Euskara Elkar-



tea, Txolarte, Ustekabe fanfarrera, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarixak, Lagun Taldea, Untzagako zaharren egoitzako abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Adolfo Jainagaren trikitixa eskolia. Behin Untzagara ailegauta, 20.30xak aldera Kaldereruen kantu eta dantzeekin gozatzeko aukeria egongo da eta jarraixan, 21.00etan Aratostietako pregoia irakorriko dabe Astixa aisialdi taldekuak, ...eta kitto!-k eta Kezka Dantza Taldeak antolatutako ekitaldixan. Eta afaltzeko atsedendaldilaburra egin eta gero, karpa barruko jaixak gabian segiduko dau, 23.00etatik aurrera herriko DJ-ak eskinduko daben saiuari esker.

### Zapatuan, goizetik gaberaifño

Aratoste Zapatuko programiari eguardixan ekingo jako: 12.00xetatik aurrera San Kristobalگو jai batzordiak girotutako animaziñua egongo da Untzagako karpan. Bestiak beste, ardaudastaketia antolatu dabe Jesus Gonzalez enologuarekin: 2'5 euro pagauta Gonzalez Teso arandegjiko ardaudak probatzeko aukeria egongo da eta, gaiñera, txorizo-pintxua be emongo dabe. Horrekin batera, 12.30xetan Untzagatik Rockalean kalejiran abiatuko da eta 14.00xak bittartian kaliak musikiakin alaitzen jardungo dabe. Zapatuan 13.30xetan banatuko dittue udalak Aratostien inguruan antolatutako lehiaketa bixetako sarixak. Kartel lehiaketan, helduen maillan irabazi daben Maialen Belaustegiri eta

umien mailla bixetan irabazliak izan diran Salma Losada eta Maialen Saez Abarrategiri banatuko detsez sarixak. Horrekin batera, Aratostietan dotorien apaindutako tabernia aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko izena emon dabenen artian aukeratzen dabinari be orduan emongo detse sarixa.

Goizeko ekitaldixak amaittuta, arratsaldian atzera be programiari ekingo detse, 17.00etatik aurrera As Burgas Galiziako Etxekuak antolatu daben umiendako koko-jantzi lehiaketarekin. 18.00etatik 21.00etara, barriz, Ustekabe fanfarrekuak kalejiran ibilliko dira. Eta 18.30xetatik 20.30xetara Drin-



**Koko-dantzarixak Merkatu Plazan batu ziran basarixetara jo aurretik. FERNANDO RETOLAZA**



### **Eguen Zurixa Kaldereruak ardau dastaketia jantzi lehiaketia berbenia eta dantzaldixa play-back-a Entieru txikixa**

...

dots taldekuak umiendako berbenia eskinduko dabe Untzagako karpan. Afaltzeko etendaldilabur bat egin eta gero, 23.00etan bueltauko dira Drindots taldekuak, goizaldeko 02.00xak arte dantzaldixa eskintzeko.

### 21 talde play-back lehiaketan

Aratoste Domekako goiza lasaixa izango da, baiña halanda be egongo da zer egin, 11.00etatik aurrera Usartza Txistulari Bandakuak kalejiran ibilliko dira eta. Eta 17.00etan, Untzagako karpa barruan, ...eta kitto! Euskara Elkarreak urtero antolatzen daben umiendako play-back lehiaketia egingo da. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailletako ikasliak hartuko dabe parte eta, antolatzailliak esan dabenez, "lehiaketiak sekula baiño partehartzaille gehixago eukiko dittu, 21 taldek izena emon dabe eta".

Hórren artian hainbat sari banatuko dittue epai-mahaikuak: interprete onenentzako sarixa, ko-reografixa onenarendako eta koko-jantzi onenarendako sarixa emotiaz gain, parte hartzen daben talde guztiendako oparixak banatuko dittue. Eta play-back lehiaketia amaittu eta jarraixan, 18.30xak aldera karpa umiendako diskoteka bihurtuko dau DJ Arnok, dantzan egin nahi daben guztiendako musika saia eskinduta.

Eta asteburu bete-betia agurtuta, koko-jantzixak albo batera lagako dittugu, baiña ez luzarorako, oindiok Aratostieta-ko azken eguna, **Aratoste Martitzena** aurretik dakagulako. Egun horretan atzera be ikasliak izango dira protagonista eta, horregaittik, programia arratsaldian, eskolatik urtetzen dabengan hasiko da: 17.00etatik 18.30xetara umiendako jolasak egingo dira Untzagan, Astixaren eskutik. 18.30xetan, barriz, sardiñaren entieru txikixa egingo dabe, trikitilarixak lagunduta eta, Torbio Etxebarria kalia ziherkatuko daben kalejira amaittuta, jaixa azken txanpan sartuko da, Aratoste egitarauko azken ekitaldixarekin, DJ Arnoren saiuarekin.



**Aurten ifñoiz baiño talde gehixagok emon dabe izena play-back lehiaketan parte hartzeko. LEIRE ITURBE**



## Orotariko enpresa eta negozioak Ikasenpresan

Laugarrenez Untzagan egindako Ikasenpresa azokak jende ugari batu zuen martitzen goizean. Azokak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Lanbide Heziketako 46 ikastetxetatik etorritako 700 ikasletik gora elkartzituen Untzagako plaza bietakokarpetan. Han ipinitako postuetan 135 "ikasenpresak" euren zerbitzu eta produktuak erakutsi eta saltzeko aukera izan zuten. Azoka berez aurreko asteko eguenean egiteko zen, baina eguraldi eskasa ze-

la-eta, egun batzuk atzeratzea eta aste honetan egitea erabaki zuten antolatzaileek. Urtean behin antolatzen den azoka erakusleho aparta da Ikasleek klasean sortu dituzten enpresak ezagutzera emateko, baita euren arteko harremanak lantzeko ere. Urteroko martxari jarraituta, azokako postuetan batutako eskaintza benetan zabala eta orotarikoa izan zen: birziklatutako produktuak, informatika programen diseinurako zerbi-



Proiektuko arduradunek eta antolatzaileek zabaldu zuten ekitaldia.

tzuak, elikadura, egurrez egindako produktuak, 3D inpre-

bat Gobernu Kanpoko Erakunderi laguntzeko erabili ohi dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak koordinatzen du Ikasenpresa programa, Tknika Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroaren bidez eta Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako ikasleei zuzenduta dago. Eibarraren azoka antolatzeko, bestalde, udalaren laguntza izaten dute. Programaren arduradunen berbetan, "horri esker, ikasleek enpresa bat sortzeko esperientzian parte hartzeko aukera dute, horretarako eman beharreko pauso guztiak, hasieratik amaierara arte emanaz. Izan ere, helburu nagusia ikasleen gaitasun ekintzailea garatzea da". Twitter sare sozialean #ikasenpresa15 traola sortu da, nahi duenak Ikasenpresa-rekin zerikusia duen guztiari jarraipena egiteko aukera izan dezan.



Orotariko negozio eta zerbitzuak aurkeztu zituzten ikasleek Untzagan egindako Ikasenpresa azokan. SILBIA HERNANDEZ

sioa, mekanizatutakoak, ipuin kontaketa, menpekotasuna duten pertsonen zaintza, pertsonal eta kirol entrenamendua, autore bitxiak, aholkularitza pertsonala, bitxiak... denetarik ipini zuten ikusgai eta salgai. Gainera, enpresa-proiektuei esker batzen dituzten irabaziak hain-



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte

# Kopina moda

f kopinamoda

San Agustin, 3  
943 204 181



Aire berriak!

# Khôl

Estilistak

Estaziño, 4  
943 254776



## BEHERAPEN AZOKA DATORREN EGUAZTENETIK ZAPATURA ARTE

## 20 denda neguko beherapenetako azken saiakeran

Toribio Etxebarria kaleak Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako Beherapen Azoka hartuko du hilaren 18tik 21era. Neguko "factoring" horretan Eibarko hogeitau denda izango dira parte hartzen: Aixa, Burbujas y más, Cedry, Corral, Doroti, El Corte Inglés, Farmalur, Gloss, Gratzina, Guby Chicas, Guby Chicos, Igmarr, Ikusimakusi, Kopiaña, Lide, No Comment, Nona, Ttiki, Txukuna eta Xare.

Toribio Etxebarria kaleak merkatal gune inoiz baino irekiagoa hartuko du datorren asteko eguaztenetik zapatura; hogeitau dendetik, hamazazpi kalean kokatuko diren karpetan erakutsiko dituzte euren produktuak eta beste hirurek euren dendetik salduko dituzte.



Urteroko azoka honek neguko beherapenen denboraldiaren amaiera ekartzen digu. Eibarko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Konpetibitateko Sailak babestutako azokak goizeko 10.00etatik arratsaldeko 20.00ak arteko ordutegia izango du; hori bai, azken egunean (zapatuan) bakarrik 14.00ak arte iraungo du. Aurreko urteetan izandako arrakastak bultzatu ditu berriro ere Eibar Merkataritza Gune Irekiko partaidea azoka antolatuzera: "Beherapen handienen au-

rean, bezeroen erantzuna bikaina izaten da eta, konturatu garenez, inguruko herrietatik ere etortzen da jendea gurera erosketak egitera". Azokarekin batera, eta iazkoari jarraituz, animazio ekitaldiak izango dira kalean.

Azokaren inaugurazioa eguaztenean egingo da, 10.00etan, eta hor izango dira Eibarko Merkatarien Elkarte, Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresarien Elkarte, El Corte Inglés, Gipuzkoako Merkataritza Federazioa eta Eibarko Udala.



## Beherapenen azoka

Otsailak 18 / 19 / 20 / 21

Toribio Etxebarria kalean

Ordutegia: 10:00<sup>etatik</sup> - 20:00<sup>etara</sup>21 Larunbata: 10:00<sup>etatik</sup> - 14:00<sup>etara</sup>

## Denda parte-hartzaileak

AIXA DEKORAZIOA  
BURBUJAS y MÁS  
CEDRY  
EL CORTE INGLÉS  
FARMALUR  
GLOSS  
GRATZINA

GUBY NESKAK  
GUBY MUTILAK  
IKUSIMAKUSI  
KOPIÑA  
LIDE  
NO COMMENT  
NONA

TTIKI  
TXUKUNA  
XARE  
\* CORRAL  
\* DOROTI  
\* IGMAR  
\* Euren dendetan

# + OSASZUN GODA

## Dentistak



**arat**  
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU  
INTEGRALA

Hartz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta  
kolektibo handiekin  
itundutako zentroa...



TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf. 943 20 18 51



**bista eder**  
clinica dental - hartz klinika

**Asko dira**  
gure hartz-kliniketara  
etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com



**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnua: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hartz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuina 943 70 00 90



RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

**Irribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnua. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com



**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia  
ume eta  
helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**  
RPS 195/11

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**  
Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia /  
Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Gernu-jarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnua. 943 20 34 46 Tfnua. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA**  
ESTETIKOA

**KIRURGIA**  
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044




## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

**ARRAQUETA, 20**  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikia

**Miopia ebakuntzak**  
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzakal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA AIZPUN**  
124 kolegiatu zenbakia

**PODOLOGOA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93




**BIDEBARRIETA, 48 EIBAR**  
943 203050

**ERDIKO KALE 54 ARRASATE**  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

**Maidar Lopez Etxebarria**

**Arragueta 2 Bis-B, Behea C**  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

**Calbeton, 4 - 2.**  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

**BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa**

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOA

- Umeak, Nerabeurrekoak, Nerabeak
- Hiperaktibitatea, Autoestimua, Motibazioa, etb.

Tel. 605 75 75 06

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (IBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA**



**Arrate Garitaonandia**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

**Bidebarrieta, 27-B (3. atea)**  
943 20 22 66

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**



**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...  
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

## Euskadiko txapel bi Kalamuako judokentzat

Aurreko asteburuan Gasteizeko Arriaga kiroldegian jokaturako junior mailako Euskadiko txapelketan, Nekane Muguruza eta Julen Ramon Kalamua Klubeko judokek urrezko domina bana eskuratu zuten eta Josu Olmos gure herriko hirugarren ordezkaria bosgarren postuan sailkatu zen. Julio Gallego eta Manu

Agirre, bestalde, epaile lana egiteko hautatu zituzten txapelketa horietan. Emaizta horiekin, aipaturako bi irabazleek hilaren 21ean Iruñean jokaturako den sektore faserako txartela eskuratu dute. Bestalde, Juan Ramon Del Barriok judoko gerriko beltza 5. dan-a bereganatu du.



*Txapelketan parte hartu zuten hiru judoka eta epaile biak.*



*Eibarrak bigarren zatian nagusitu zitzaizen elgoibartarrei garaipen eroso lortzeko.*

## Somos Eibar Eskubaloiak ondo irabazi zion Elgoibarko Alcortari

Estatuko Lehen Mailako partiduan, eibartarrek 29-23 irabazi zioten Alcorta Forging Group-ekoei, atsedenaldira 14nako berdinketarekin heldu eta gero. Amaierako sei goleko aldea bigarren zatia erdialdean zabaldu zen eta, horrela, Eibar Eskubaloia ziur, lasai eta baliabide askokoa ikusi ahal izan genuen Elgoibar oso lehiakor eta zailaren aurrean. Fernando Fernandez mutilek bihar sailkapenean eragin berezia izan dezakeen partidua jokatu

dute Iruñean Anaitasuna bigarren sailkatuaren kantxan: oraingo hiru puntuko aldearen handitzeak eibartarren sendotzea ekar dezake lidergoan edo, kontrakoa, txikitzeak abantaila puntu bakarrera murriztea eragingo luke.

Eibarko Haritza senior mailako bigarren taldeak, Leitzararen kantxan irabazita, laugarren garaipena jarraian lortu zuen eta, Ibai Gesalaga entrenatzailearen ustetan, "taldeak aurkitu du bere joko tankera, defentsan oinarritua".

## Katu Kalek amore eman zuen Take Coach liderraren aurrean

Eibarko saskibaloia taldeak gogor egin zion aurre Tolosako Usabal kiroldegian azken sailkapenean lider amaitu duen Take Coach-i. Aurreko jardunaldian Zarautzi irabazita maila igotzeko jokatu beharreko fasean parte hartzeko txartela lortu eta gero, eibartarrek hor aurkari zuzena izan dezaketenaekin borroka latza izan zuten, atsedenaldira 22-24 irabazten joateraino. Azken laurde-

nerako ere 39-44 irabazten joan ziren, baina azkenean 55-50 galdu zuten defentsak markaturako partiduan. Polanco anaiak izan ziren saskiratzaile onak beste behin: Willek 14 puntu saskiratu zituen eta Andersonek 8. Orain igotzeko fasea prestatzen hasiko dira: martitzen eta eguenetan, 20.00etan hasita. Zaletuak lasai joan daitezke entrenamendu horietara.



## Dina Arizaga Agirre

(AITOR ALBERDI GURE ZUZENDARITZA KIDEAREN AMA)

*Otsailaren 9an hil zen, 90 urterekin*

*Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.*

*...eta kitto! Euskara Elkarteak*



## Deporreko xake taldeen garaipen bikoitza


Ligako bosgarren jardunaldia onuragarria izan da Eibarko Klub Deportiboko xakeko talde bientzat eta, horrela, Preferente mailakoak Erreterian Mundarro-Oreeta A taldeari irabazten zion bitartean, gauza bera egin zuen 2. mailako taldeak Eibarren Beasaingo Alfíl B-rekin.



Gainera, 3-1eko emaitza berbera izan zen neurketa bietan. Lehen taldeko David Perezek eta Jon Aranek garaipena lortu zuten eta Julen Garrok eta Rikardo Bastidak berdindu. Deporren jokutako jardunaldian, bestalde, Xabier Beorlegi, Emilio Freire eta Jose Antonio Garrido garaile izan ziren eta Iker Oliverrek galdu egin zuen bere partida.

## Narbaiza-Gaztañaga bikotea multzoko goi-goian

Klub Deportiboko jubenil mailako bikotea erraz nagusitu zitzaion Zestoakoari (22-7) eta euren multzoko lidergoan jarraitzen du. Azkargorta-Simon esku-pilotako alebin mailako bikotea ere garaile izan zen, 22-15 irabazita Camina-Albizuriri, lau pilotariak maila ona eskaini zuten partiduan. Unamunzaga-Agirresarobe senior mailako bikoteak, bestalde, ez zuen egun onena izan eta porrot egin zuten (6-22) Billaonako ordezkarien aurrean. Gaur pilota jaialdia izango da Astelenan, 19.15etan hasita. Infantil mailako neurketan, Gutierrezek eta Albisuk osatutako bikotea Tolosako ordezkarien aurka lehiatuko da. Aukera polita izan daiteke pilota zaletuentzat gazte horien jokoaz gozatzeko.



## motzean

### FOBALLA

Eibar Foball Taldeak partidu garrantzitsua jokatu du datorren astelehenean Ipuruan (20.45etan) Elx-en aurka. Alacanteko taldeak gora egin du azken partiduetan eta baita jaitsiera postuetatik aldendu. Lehenengo itzuliko partiduan eibartarrek erraz nagusitu ziren (0-2). Bestalde, Ipuruan jokatu beharreko bigarren itzuliko partidu interesgarrienak badute data: Athletic-en aurkako neurketa martxoaren 1ean (domekan) jokatu da, 17.00etan. Eta Bartzelonaren aurkako handik bi astera: martxoaren 14an (zapatua), arratsaldeko 18.00etan hasita.

### KLUB DEPORTIBOA

Eibarko Klub Deportiboak hilaren 27an, barixakua, egingo du ohiko Batzar Nagusia. Batzar hori 20.00etan hasiko da, bigarren deialdian. Gai ordenan 2014ko ekintzen memoria, kontuen gorabeherak eta galdera eta eskariak izango dira. Bestalde, zuzendaritza batzordeak kide hauek hautatuko ditu: Argazkilaritza, Artxiboa, Eskia, Kezka Dantza Taldea, Kultura, Squash-a eta Txirrindularitza.

EHUNDAKA LAGUN BERBETAN PROGRAMAN, 867 BAZKIDE

...eta kitto!  
ko  
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea  
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18  
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera  
**5 euro**
- Lanean dihardut  
**45 euro**
- Langabea, ikaslea,  
jubilatua, etxeoandrea  
**15 euro**
- Borondatez, diru  
gehiago eman nahi dut  
..... **euro**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ e-maila: \_\_\_\_\_  
Lanbidea: \_\_\_\_\_ Jaiotze data: \_\_\_\_\_  
Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_\_



## AITOR ZABALA (Erlemundua Taldekoa) "Ardoarekin egiten den bezala, ezti mota asko dastatzen joango gara"

"Erlemundua" erlearen eta erlezaintzaren inguruan sortutako proiektu bat da. Otsailaren 24an ezti dastaketa saioa eskainiko du Erlemunduako Aitor Zabalak ...eta kitto!ko lokaletan. Izena emateko epea datorren eguaztenera arte dago zabalik 5 €ren truke (4,50 € bazkide eta berbalagunentzako).

### - Zer eskainiko duzu Eibarko ezti dastaketan?

Helburua eztiaren inguruan aritzea da. Erleen gainean hitzeginen hasiko gara: erleen bizimodua eta erlaintzari buruz jardungo dugu. Erleek ezti nola ekoizten duten eta guk ezti abarasketatik nola ateratzen eta, ondoren, nola ontziratzen dugun ikusiko dugu. Ondoren egingo dugun dastaketan, ardoarekin egiten den bezala, eztiaren ezaugarri nabarmenak aztertzen joango gara: kristalizazioa, usaina, zaporea...

### - Dastaketan zenbat ezti-mota egongo dira?

Ardoarekin gertatzen den bezala, ezti mota asko dago. Guk sei mota desberdin dastatuko ditugu. Lore bakarrekoak eta lore anitzekoak (milalore) izango ditugu. Lore bakarrekoa ia bere osotasunean lore mota baten nektarraz osatutako ezti da, eta hemen gaztaina, akazia edo erromero loreez egindako eztiak izango ditugu dastagai. Etortzen den jendeari ezti guzti hauek nola dastatu azalduko diot, eta, dastatu ahala, fitxa batzuk betetzen joango gara.

### - Zeintzuk dira eztiaren onurak?

Eztia produktu guztiz naturala da eta bere propietate fisiko-kimikoengatik ez du inongo tratamendurik behar, ondo ekoiztu bada. Aintzinatik gaitz asko sendatzeko erabili da ezti; katarroak, gripea eta eztarriko mina sendatzeaz gain, oso ona da beste gauza batzutarako. Esate baterako, zikatrizazioan indar handia du. Gainera, bakterien kontrako sendagarri bezala ere oso ona da: oso gozoa denez, bakteriak hil egiten ditu. Kremetan ere asko erabiltzen da propietate nutritibo ugari dituelako.

### - Zer da Ertimundua eta nolako lana egiten duzue?

Erleekin eta erlezaintzarekin zerikusia daukaten lanak egiten ditugu. Erlategiak zaindu eta, ezti az gain, beste produktu batzuk ere ekoizten eta saltzen ditugu: propoleoa, polena, xaboiak, ukenduak, kandelak...; gainera, beste zebitzu batzuk ere eskaintzen ditugu: dibulgazioa, hitzaldiak, erakusketak... Gure erlategiak zaintzeaz gain, nahi izanez gero, besteen erlategiak zaintzen ditugu, erle osasuntsu batekin lan egin dezaten (Polinizazio aktiboa nekazaritzarako, natur eskolak...).

## Iñigo Garaturen lana Portalean

Gaurtik hasita Iñigo Garatu artista gaztearen obra izango da protagonista Portalean. Eskulturagintzan, argazkilaritzan eta bideo arloetan egin dituen lanen artean erakusteko hautatu dituenak egongo dira ikusgai eta, obra horien bitartez, artistaren alde desberdinak ezagutzeko aukera egongo da. Eskulturan, forma geometriko sinpledun ele-

mentuak egiteko eta eraikitzekeo egurra, metala eta porlana erabiltzen ditu. Argazkilaritzan, berriz, ingurune industrialak ardatz dituzten irudiak egongo dira ikusgai. Eta, azkenik, bideo arloan, "Espacios de trabajo" bere azken lanaren selekzio bat aurkeztuko du. Erakusketa martxoaren 1era arte egongo da zabalik.



## "Gazako zerria" film azpitoluduna Portalean

Filmazpit programaren eskutik "Gazako Zerria" filma proiektatuko da datorren eguaztenean Portalean, hiru emanalditan (09.00etan, 14.30etan eta 19.00etan). Saio guztiak irekiak dira, baina lehenengo biak bereziki euskaltegiatiko ikasleei zuzenduta daude. Filmaren jatorrizko hizkuntzak arabiera eta hebreera dira eta azpitoluak euskeraz daude. Sarrera doan izango dada. Sylvain Estibalen zuzendaritzapean, Gazako arrantzeale palestinar baten istorioa kontatzen du filmak. Zineuskadi elkarteak finantzatzen du Filmazpit programa, Euskadiko zinemaldietan emandako hainbat film interesgarri euskeraz azpitolulatzeko helburuari jarraituta. Eibarren hilero eskainiko dituzte euskeraz azpitolulatzeko filmak eta egitasmo horren antolatzaileak AEK, Udal Euskaltegia eta Euskara saila dira.





## Udaberri Kontzertua domekan

Eibarko Txirrindulari Elkarteak domekan ekingo dio denboraldiari, Cielito Musika Bandak 12.30etatik aurrera Coliseoan emango duen VI. Udaberri Kontzertuarekin. Carlos Sanchez Barbak zuzenduko duen kontzertuan, Straussen ohiko polkekin batera, hainbat soinu-bandatik hartutako piezak entzuteko aukera izango da: "Txirrindularien Txirrina" (polka, Carlos Sanchez Barba), "La Chasée" (polka, J. Strauss), "Si yo fuera el Rey" (A. Adams), "Carros de Fuego" (Vangelis), "Symphonic marches" (popurri, J. Williams) eta "Ohne Sorgen" (polka, J. Strauss). Bestalde, eguraldiak laguntzen bada, kontzertuaren aurretik, 11.30etan kalejira egingo dutela eman dute aditzera.

## laburrak



### YOGA&SORMENA

Marta Irustak eta Maite Arriagak "Yoga&Sormena" tailerra emango dute hilaren 28an (zapatuan), 10.00etatik 14.00etara. Izena emateko edo informazioa eskatzeko 622053933 telefono zenbakira deitu daiteke. Tailerrak 60 euro balio du.

### JUBILATUAK MINTZAPRAKTIKAN

Untzagako zentro sozialean euskerazko solasaldietarako berbalagun taldea ipiniko dute martxan. Saioak astelehenero izango dira, 11.00etatik 12.00etara. Interesa duenak Untzagako jubilatutako etxeko bulegoan Ana Marirengatik galdetu dezake. Izena emateko epea otsailaren 27ra artekoa da.



### EUSKERAZ PRIMERAN!

Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan ia 300 establezimendu bisitatu ditu... eta kitto! Euskara Elkarteak. Dagoeneko 191 dendak eman dute izena kanpainan eta, arduradunek aurreratu dutenez, laster ostalari zein dendariei zuzendutako zerbitzu-katalogoa eta hainbat sustapen ekintza egingo dituzte.

## Martxoaren 8-rako erakusketa prestatzen

Arrate Kultur Elkarteak Lan Artistikoen Erakusketa egingo du Topalekuan, Martxoaren 8an gogoratuko den Emakume Langilearen Egunaren harira. Martxoaren 6tik 15era bitartean zabalduko duten erakusketan 16 urte baino gehiagoko edozeinek har dezake parte, egun horrekin nolabaiteko lotura duten artelanak aurkeztuta. Era guztietako artelanak onartuko dituzte: margoak, eskulturak, argazkiak, bideoak, marrazkiak... Parte hartu

nahi duenak martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko du erakutsi nahi duen artelana, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan (astelehen eta eguenetan, 09.30etatik 11.30etara eta martitzen eta eguaztenetan 17.00etatik 19.00etara). Lane-

MAR  
TXO  
AK




Alicia Garciak irabazi zuen iazko artelan lehiaketa.

kin batera, gutun-azal zuri batean artistaren datuak idatziz entregatu beharko dira (izen-abizenak eta telefono zenbakia) eta gutun-azalaren kanpoaldean, berriz, lanaren izenburua adieraziko da. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko 638284912 telefono zenbakira (Iratxe) edo iraunao@yahoo.es helbidera idatzi daiteke edo, bestela, zuzenean Arrate Kultur Elkartearen bulegoan galdetu, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 943202299 telefonora deitu eta erantzungailuan mezua laga daiteke.

## JOSE IGNACIO ARIZMENDIARRIETA GARAGARZA

### 1. URTEURRENA (2014-II-12)



*"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"* ETXEOEK



### ○ Konbergentziarako joera udalerrietan

Iñaki Iurrebasok UEMAko udalerrien 30 urteko bilakera soziolinguistikoa azaldu berri du, udalerrietako euskara gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera datuak xehatuz. Hiru aldagaiak kontuan hartzen baditugu, euskarak atzera egin du, batipat azken hamar urteotan, "eta udalerri euskaldunak gaur egun ez dira hain euskaldunak". Hori bai, beste muturra ere higatzen doa, udalerri erdaldunenetan gero eta euskara hiztun proportzio altuagoa dagoelako. Beraz, konbergentziarako joera nabaria da: udalerri erdaldunetan euskara indarra hartzen ari da eta euskaldunetan, aldiz, galtzen.

### ○ Liburugintza maldan behera

Joan Mari Torrealdaik 2013ko liburugintzaz egindako azterketaren datuei erreparatuta, "giza eta gizarte zientzietako liburuen beherakadari bereziki kezkarri" irizten dio egileak. Torrealdaik liburugintzak maldan behera jarraitzen duela egiaztatu du: euskarazko 1.822 titulu argitaratu ziren 2013an, aurreko urtean baino 183 gutxiago. Horri gehitu behar zaio 2008an 2.597 argitaratu zirenetik (hor jo zuen goia), ia urtero jaitsi dela kopurua. Liburu digitalen argitalgintzak ez du jaitziera eragozteko moduko daturik eman. Itzulitako liburuaren gorakada da nabarmentzeko beste datu bat.

## euskararen txokoa

### Musika ikasleen emanaldi arrakastatsuak


Aurreko asteburuan musikari gazteen emanaldi bi hartu zituen Coliseo antzokiak. Barixakuan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen piano eta gitarra jaialdia egin zen, Casilda Txurruka eta Ana Maria Caballero irakasleek zuzenduta eta domeka eguerdian, berri, hilaren 28an Andoainean egingo den X. Piano Jaialdian lehiatuko diren Eibarko pianojole gazteek kontzertua eman zuten. Emanaldi bietan musika ikasle gazteek daukaten maila altua agerian geratu zen.



Barixakuko eta domekako emanaldietan musika ikasle gazteek maila altua dutela erakutsi zuten. LEIRE ITURBE

### La Sallekoen jaiotza irabazleak

Untzagako zentro sozialak Gabonetan ikusgai izan zuten La Salle Iasiko ikasleen jaiotza erakusketako irabazleei sariak banatu dizkie. Parte-hartzaileak ikastetxe horretako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak izan ziren eta, irabazleak aukeratzeko, erakusketara joandakoen botoak hartu dituzte kontuan. Lehenengo saria Arlena, Ane eta Marina hirukotearen jaiotzak jaso du; bigarrena, Jone, Claudia, Aitana eta Inesenak; eta hirugarrena Aimar, Juan eta Josurenak. Untzagako jubilatutako etxearen ize-nean Felix Elkoroiribe presidentek eta Joseba Garciak banatu zizkieten sariak irabazleei.



### Sopa de grillos, artearen aldarrikapena

Artea denbora-pasa baino zerbait gehiago dela aldarrikatu nahi duen "Sopa de grillos" erakusketa gaurtik aurrera Portalean ikusgai egongo da. Hainbat arlotako artelanak bilduko du erakusketak, hurrengo artistek eginak: Adrian Sanz, Ainhoa Lopez, Amaia Garcia, Andra Alonso, Araceli Jalon, Asier Esparza, Gabriel Camino, Iker Kareaga, Jorge Gimeno, Leire Sanchez, Manuel Bauza, Rodrigo Varona, Sebastian Toledo eta Ruben Pino. Martxoaren 1era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

### Antzerkirako sarreraren salmenta

Antzerki Jardunaldietako antolazailleek aurreko asteburuan zabaldu zuten aurrezalmentan 2.200 sarrera saldu zituzten, baina, hala ere, antzezlan eta funtzio guztietarako sarrerak geratzen direla argitu dute. Saldutako sarrera kopuruari begirata, "De mutuo desacuerdo", "La gloria de mi mare" eta "Erdibana" lanek izan dute arrakasta gehien orain arte. Sarrerak erosteko, interneten Kutxabankek eskaintzen duen zerbitzura jo daiteke eta, bestela, Coliseoko txarteldegian erosteko aukera ere badago, astelehenean 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, SILVIA, hillaren 10ian bederatzu urte bete zenduaz-eta. Guraso, neba, aitxixa-amama eta famelixaren partez.



Zorionak, HELENA, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat, printzesa, famelixa eta Martinen partez.



Zorionak, ELGA, martitzenian urtiak bete zenduaz-eta. 7 urte etxia eta etxeak alaitzen. Keep Rocking!



Zorionak, MIREN Salaberria, hillaren 10ian lau urte egin zenduaz-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, MIREN, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Gure bihotzeko laztanari, aitita eta amamaren partetik.



Zorionak, MARA, martitzenian zazpi urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, bixar zazpi urte beteko dozuzelako. Muxu potolo bat Malen eta famelixaren partez.



Zorionak, MIREN Badiola Albizu, hillaren 9xan sei urte bete zenduaz-eta. Jonen eta famelixaren partez.



Zorionak, AMAIA!!!, atzo urtetxua bete zenduan-eta. Muxu potolo bat aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, JON, gaur hiru urte egiten dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixakuen partez. Aupa, super-puzkar!



Zorionak, URKO, gaur zazpi urte betetzen dozuzelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, mutil haundi. Zein azkar pasa zaigun denporia: eta 17xan, 3 urte! Muxu potolua famelixaren partez.



Zorionak, UNAX, datorren martitzenian bi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat ASIERREN, amaren eta aittaren partez.



Zorionak, OIER (bixar bi urte) eta amatxo Mª JOSE (astelehenian), zuen urtebetetzian. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, gure ALEXEK lau urte eta gure LIBEK zazpi egin ditue!! Maite zaittugu, potxoluk!



Zorionak, IRAIA. Muxu haundi bat Ane eta etxekuen partez.



Zorionak, EKAIN, atzo zortzi urte bete zenduaz-eta. Etxeko guztien partez.

## zinea Coliseoan

**(1 ARETOAN)**  
**14an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**15ean: 17.00, 20.00**  
**16an: 20.30**

**"The imitation game"**  
 Zuzendaria: Morten Tyldum



**(2 ARETOAN)**  
**14an: 19.45, 22.30**  
**15ean: 20.00**  
**16an: 20.30**

**"El destino de Jupiter"**  
 Zuzendaria: Andy Wachovski



**(2 ARETOAN)**  
**14an: 17.00**  
**15ean: 17.00**  
**(ANTZOKIAN)**  
**14an: 19.45, 22.30**  
**15ean: 20.00**  
**16an: 20.30**

**"Cincuenta sombras de Grey"**  
 Zuzendaria: Sam Taylor-Johnson



**(ANTZOKIAN)**  
**14an: 17.00**  
**15ean: 17.00**

**"Bob Esponja"**  
 Zuzendaria: Paul Tibbitt



## BARIXAKUA 13

### GAZTELEKUA

**16.30.** Txokolate-jana. Indianokuan.

### LEHIAKETA+TAILERRA

**17.30.** Umeendako koko-jantzi lehiaketa (ekitaldi aretoan).  
**17.30/18.00.** Aurpegiak margotzeko tailerra (SI jolasgunean). El Corte Inglesean.

### ARATOSTEAK

**20.00.** Kaldereroen kalejira. Urkizutik Untzagaraino.  
**20.30.** Kaldereroen abestiak eta dantzak.  
**21.00.** Aratosteetako pregoia.  
**23.00.** Herriko DJ-en emanaldia. Untzagan.

## ZAPATUA 14

### ARATOSTEAK

**12.00.** Animazioa Aratosteetako karpan, San Kristobalگو Jai Batzordearekin girotua. Ardo-dastaketa.  
**12.30/14.00.** Untzagatik hasita, Rockalean kalejira.  
**13.30.** Aratosteetako taberna eta kartel lehiaketen sari banaketa.  
**17.00.** Koko-jantzi lehiaketa, Galiziako Etxean.  
**18.00/21.00.** Kalejira Ustekabe fanfarrearekin.  
**18.30/20.30.** Umeendako berbena, Drindots taldearekin.  
**23.00/02.00.** Dantzaldia, Drindots taldearen eskutik. Untzagako karpan.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Aratoste jaia. Indianokuan.

### DJ SAIOA

**00.00.** Aratoste elektronikoa: Iñigo Txanpaña, Barrene, David Gonzalez eta Urok. Tas Tasen.

## DOMEKA 15

### ARATOSTEAK

**11.00.** Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.  
**17.00.** Umeendako Playback lehiaketa LH 5-6 mailetakoko ikasleentzat, ...eta kitto!-k antolatuta.  
**18.30.** Umeendako diskoteka DJ Arnorekin. Untzagako karpan.

### KONTZERTUA

**12.30.** VI. Udaberri Kontzertua, Cielito Musika Bandaren eskutik. Coliseoan.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Play / Wii. Indianokuan.

## ASTELEHENA 16

### TAILERRA

**09.30-13.30.** "Finantziario-plana. Errentagarria izango da zure negozioa?". Debegesan.

## MARTITZENA 17

### IKASTEN

**10.00.** "Demokrazia antolatzailearen porrota", Miguel Arroitauregiren eskutik. Armeria Eskolan.

### ARATOSTEAK

**17.00/18.30.** Umeendako jolasak, Astixaren eskutik.  
**18.30.** Sardinaren entierrez txikia, trikilariekin. Umeendako diskoteka DJ Arnorekin. Untzagako karpan.

### JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

**17.00 eta 18.30.** Portalean.

## EGUAZTENA 18

### PROIEKZIOA

**09.00, 14.30 eta 19.00.** "Gazako zerria" (Sylvain Estibal). Portalean.

### TAILERRA

**09.30/13.30.** "Marketing plana. Nola lortu zure lehen bezeroak?". Debegesan.

### IKASTEN

**10.30.** Antzerki taldekoen entsegua. Portalean.

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Alderdi politikoak. Denak berdinak? Pertsonen erantzukizuna erakundeetan". Untzaga jubilatuta etxean.

## EGUAZTENA 18

### MATXARIATUZ

**18.30.** Matxariatuz parte-hartze prozesuaren bosgarren tailerra: "Ideiak". Armagintza museoan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

## EGUENA 19

### IKASTEN

**10.00.** "Kontsumitzailea Bankuen egoera berriaren aurrean", Juan Alberto Gonzalezaren eskutik. Armeria Eskolan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Autoridad y disciplina" hitzaldia, DBH-ko ikasleentzako gurasoentzat. La Salle Azitainen.

### KALERATZEAK STOP

**19.00.** Kaleratzeak Stop Debarrenaren batzar irekia. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Ez izan lotsarik zure gustu musikalak agertzeko; gogorra egiten bazaigu ere, nahi duzuna entzuteko eskubidea duzu.

### TAURUS

Zure burugogorkeria albo batera laga behar duzu. Ondorio positiboak hasiko zara nabaritzen uste baino lehenago.

### GEMINI

Urduri zabilaz eta ez dakizu zergatik. Osasuna galtzen ari zara eta, zuk ez baduzu hautatu ere, saiatu lasaitzen.

### CANCER

Zerbait egin aurretik brrriitan pentsatzen hasi behar duzu, inputsoekin jotatzeak ondorio txarrak ekarriko dizkizu-eta.

### LEO

Aste Santuko oporraldian pentsatzen? Burua galdu barik, ea horrek motibatzen zaituen lana behar den moduan egiteko.

### VIRGO

Karaoke batean irten zarela-eta izar bat sentitzen zara. Jaitsi beharko zenituzke haize horiek, jasanezina egin aurretik.

### LIBRA

Ez dakizu zer egin zure bizitzarekin. Aukera bat baino gehiago izango duzu, horien artean urrutira joateko pagotxa.

### SCORPIUS

Maitasunarekin ia urte osoan zabilaz zoraturata. Oso garrantzitsua izanda ere, ez da bizitzaren zati bakarra. Lanik bai?

### SAGITTARIUS

Ezusteakoa izango duzu egunotan eta sasoi zaharrak gogoratzeke une gozoak dastatuko dituzu. Hori bai laguna, hori!

### CAPRICORNIUS

Baduzu lagun bat aholku asko ematen dizuna, baina ez dizu entzun nahi dizuna esaten. Pipertuta zaude akaso?


### AQUARIUS

Bide okerra hautatu zenuenetik, zaila egiten zaizu bertatik urrutzea. Ahalegin handia eskatzen dizu, baina merezi du.

### PISCIS

Negar eta negar zabilaz aste guztian. Itsututa egon beharrean, jaso eskaintzen dizuten laguntza. Ate bat duzu zabalik.





## erakusketak

- ✓ **Otsailaren 15era arte**  
**ARRATE KULTUR ELKARTEAREN LOGOTIPO** lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**  
**J.I. AIZPURIAREN** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*  
**JOSE IGNACIO DE CASTROREN** argazki erakusketa. *El Ambigun.*
- ✓ **Martxoaren 1era arte**  
**JOSEBA ARGINZONIZEN** erakusketa. *El Corte Inglesean.*  
**IÑIGO GARATUREN** eskultura, argazki eta bi-deo erakusketa. *Portalean.*  
**"SOPA DE GRILLOS"** erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**  
**"EIBAR INDUSTRIALA 2014"** erakusketa. *Armaztearen Museoa (Portalean).*

## farmaziak

- ✓ **barixakua 13**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **zapatua 14**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **domeka 15**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **astelehena 16**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 17**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguztana 18**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **eguna 19**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **barixakua 20**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

**GAUEZ BETI -2015EAN-**  
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekuua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARRO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## hildakoak

- Josefina Araujo Novoa. 73 urte. 2015-I-29.
- Gabriel Sanchez Reina. 91 urte. 2015-II-4.
- Isabel Remedios Hernandez Cabero. 87 urte. 2015-II-5.
- Miguel Angel Maguregi Ibarluzea. 61 urte. 2015-II-6.
- M<sup>a</sup> Angeles Viñe Campo. 84 urte. 2015-II-6.
- Victor Berasuetza Iraolagoitia. 79 urte. 2015-II-8.
- Joaquin Garrido Luna. 92 urte. 2015-II-8.
- Maria Suinaga Lariz. 77 urte. 2015-II-9.
- Dina Arizaga Agirre. 90 urte. 2015-II-9.
- Aurora Cid Cid. 80 urte. 2015-II-10.
- Ramon Prieto Ibañez. 93 urte. 2015-II-10.
- Luis Amategi Larrañaga. 73 urte. 2015-II-10.
- Ascension Azpiri Larrañaga. 85 urte. 2015-II-11.

## jaiotakoak

- Nerea Gonzalez De los Reyes. 2015-I-30.
- Aner Zubiate Rodriguez. 2015-II-1.
- Maya Jebari Ben Hamman. 2015-II-3.
- Markel Moya Anaya. 2015-II-4.
- Amira El Gagui Frijji. 2015-II-5.
- Enzo Garzon Blanco. 2015-II-5.
- Iria Arrizala Cabezueto. 2015-II-6.
- Seraj Aghbalon Jamili. 2015-II-6.
- Ikram Abdellatif Srassi. 2015-II-7.

## SUDOKUA

1			3	7		9		
	6	2				8		7
	3					2		
5	2					7		
		4				5		
		7					4	8
			1				8	
4			8			1	6	
	1			2	5			3

2	8	6	4	9	5	3	7	1
3	1	9	7	6	8	2	5	4
5	4	7	1	3	2	9	8	6
4	9	1	6	8	7	5	3	2
7	5	3	9	2	1	4	6	8
6	2	8	3	5	4	7	1	9
9	6	5	2	1	3	8	4	7
1	3	4	8	7	9	6	2	5
8	7	2	5	4	6	1	9	3

AURREKOEN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde berria eta 2 komun. 5 horma-armairu eta trasteroa. Iggogailua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Argitsu. 130 m erabilgarri edo 156 m eraikiak. Tel. 626-203838 edo 699-495249.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 1 edo 2 logelakoa. Merke. Tel. 631-282203.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 450-500 eurotan. Tel. 634-458275.  
– Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-153524.  
– Bikoteak, ume birekin, 3 gelako pisua hartuko luke Eibarren. Tel. 685-380585.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Furgoneta Fiat Ulysse salgai. 8 jarleku. 2001 urtekoa. Oso ondo zainduta. 2.500 euro, negoziagarriak. Tel. 678-906709.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Ilepaindegia trasposan Eibarren. Tel. 637-528992.  
– Taberna trasposan Eibarko erdialdean. Tel. 696-269154.

### 3.2. Errentan

– Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dut. 18 urtetik gorakoentzat. 70 m<sup>2</sup>. Tel. 679-425467.  
– Bulegoa alokagai. Klase partikularrak emateko egokia. 30 m<sup>2</sup>. Merkea. Tel. 607-658356.  
– Marradun garaje plaza alokagai. Handia. Ego-Gain, 6. 70 euro. Tel. 647-952677.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-617818.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 632-338445.  
– Neska euskalduna eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-338816.  
– Neska eskaintzen da interna moduan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-886450.  
– Neska eskaintzen da etxek edo pegoarak garbitzeko. Tel. 602-057185.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-912841.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-544358.  
– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 631-203287.  
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 631-506108.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-743240.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako edo plantxa egiteko. Tel. 632-337083.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 628-318570.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-918394.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko etxe, pegoa edo tabernetan. Tel. 608-523426.  
– Neska euskaldun arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 637-528992.  
– 47 urteko emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 662-659782.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 647-266965.  
– Neska eskaintzen da orduka eta gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506763.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-681516.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-544358.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta dendari jarduteko. Tel. 679-287081.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-852720.  
– Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 628-425421.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-705406.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-454417.  
– Gizonetza eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia hainbat gremiotan. Gidatze baimen guztiak. Tel. 618-153524.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 672-442318.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Tel. 627-768684.  
– Emakumea eskaintzen edozein lan egiteko. Ordugegi zabala. Tel. 631-975260.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 631-282203.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-683176.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-296596.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-258740.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo ileapaindegian lan egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 646-441190.

## 4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da andra bat zaintzeko Txonta inguruan. Interna edo egun osorako. Tel. 943-201047.  
– Soraluzeko Ufala tabernan jornada osorako kamarea/0 behar da. Sukaldatzen jakitea behar du da. Tel. 670-541347.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakasle partikularra behar da DBH 2. mailako ikaslearen etxean klaseak emateko. Tel. 666-449559.  
– Euskerazko irakaslea behar da LH 6. mailako ikaslearen etxean klaseak emateko. Tel. 669-293462.

### 5.2. Eskaintzak

– Reiki ikastaroa hasiko naiz ematen hilaren 21ean. Tel. 665-743217. Martin.  
– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikaslearen arteko trukeak eta azterketa prestaketa (EOI). Tel. 670-793312.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Helduendako Conor-WRC-Roda Rirole bizikleta salgai. 10 koroako pinoia eta plater bi, Shimano pedalekin. Oso egoera onean. Merke. Tel. 634-425792.  
– Beco hozkailua salgai. 1'38x0'58x0'55. Berrria, bakarrik hilabetez erabilia. Tel. 689-747774.  
– Eskuzko garabia, amesarekin, salgai. 250 euro. Tel. 616-533796 eta 943-752480.  
– 70. hamarkadako Fender Twin-Revers baluletako amplifikadorea salgai. Beste musika tresna batzuen salerosketa edo alokairua eta musikoentzako grabaketak. Tel. 665-732640.  
– Emaztegi soinekoa salgai. 40 tailakoa, Vintage modeloa. Tel. 619-163031.

### 6.2. Eman

– Spaniel Breton arrazako sei urteko txakurra oparitzen da. Lasaia eta esanekoa, baina ez du balio ehizarako. Tel. 943-740628.





# ... GIRORIK ONENA!!!

**BOSSA**

**JAIA  
ALAITASUNA  
KOKO-JANTZIAK**

**GURIDI  
RUGBY**

**HIPODROMOAN** *Zaldi garailea!*

**XOK**

*Areaz betetako  
EIBAR-BEACH gurean*

**AMETSA**

**TINTIN  
EIBARREN**

**Eskopeta  
eta guzti!**

**MONSTER**

**PUB  
Zaldi**

**Egin bat gurekin:  
izan MUNSTROA**

*Ahara*

**SAN  
BALENTIN  
gurekin  
ospatzeko**

**Ongi etorri GENOVA-EDERera**

**OTSAILAK  
14  
LARUNBATA**

**180°**

**hirurok**  
ALEX TC  
GORKU  
B\_ATO

**Beleko**

GOIZEKO 8:00 ETATIK AURRERA

ENEKO  
TXIM\_A  
A.GONZALEZ



## 2015eko AURREKONTUAN SARTZEA LORTU DITUGUN EGITASMOAK:

### HIRI EREDU BERRIA 73.756 €

- Ardantza eta San Agustin arteko bidegorriaren proiektua 39.150 €.
- Baratze ludikoak Sakunen 20.000 €.
- Amaña-Otaola pasabidean irristatzearen kontrako neurriak 4.606 €.
- ITEi buruzko informazio kanpaina 10.000 €.



### GIZARTE KOHESIOA 89.000 €



- Ludoteka Jazinto Olaben 18.000 €.
- Ibilbide osasuntsuak 18.000 €.
- Puntu beltzak argiztatzeko 15.000 €.
- Emakumea eta kirola 18.000 €.
- Suteen kontrako sistema 20.000 €.

### EUSKALDUNA ETA KULTUR ANITZA 32.000 €

- Euskararen plan estrategikoa egiteko 11.000 €.
- Euskal Jaia. 50. urteurrena 9.000 €.
- Kultur aniztasun astea antolatzeko 12.000 €.



### EZKERRETIK ERAIKIA 138.000 €



- Aurrezpen termikoa lortzeko neurriak udal eraikinetan 20.000 €.
- Tokiko ekonomiaren plan zuzentzailea 30.000 €.
- Energia berriztagarriak: biomasazko kalderak 18.000 €.
- Etxe hutsak alokairu sozialean jartzeko programa 50.000 €.
- RGI kobratzen duten familien haurrentzat, laguntza 20.000 €.

Partidarik gabeko egitasmoen artean parte hartzeari buruzko ordenantza onartzea. FIARE banku etikoan kontu bat irekitzea.

Eko zenterra bultzatzea eta gaikako bilketaren inguruko kanpaina ere lortu ditugu.

**GUZTIRA 332.756 EURO EIBARKO ELKARTE ETA HIRITARRON BEHARREI ERANTZUNA EMATEKO. EIBARRAREN ALDAKETA BEHAR DUGU, DENON ARTEAN, LORTUKO DUGU!.**